

"DONOSTIAKO ASTE NAGUSIA" ZOZKETAREN OINARRIAK (2018KO ABUZTUA)

1. Parte hartzeko eskubidea dute abuztuaren 11ko 23:00etatik abuztuaren 18ko 23:00ak arte bozkatzeko dutenek, 2018ko Donostiako Aste Nagusia aplikazioaren bidez, bai eta horretarako jartzen diren kutxetan bozketa-txartelak hilaren 18a baino lehen uzten dituztenek ere. Arauei jarraiki eman behar da botoa; Donostiako Aste Nagusian parte hartzen duten piroteknia-enpresetako bat hautatu, eta 1etik 5era bitarteko puntuazioa eman.
2. 2018ko abuztuaren 12tik 18ra bitartean egingo da zozketa; horren publizitatea, berriz, Euskaltelen sare sozialetan eta Euskaltelen blogean, bai eta bidaltzen diren mezu elektronikoetan eta liburuxketan ere.
3. Sari hau zozkatuko da
 - APLIKAZIOAREN BIDEZ BOZKATZEN DUTENEN ARTEAN:
 - Irabazle batentzat: lau gaueko egonaldia bi lagunentzat, Pragan, 4*-ko hotel batean, hiriaren erdigunean, ostatua eta gosaria barne direla, Vibo Bcd Travelen katalogoko baldintzen eta daten arabera. Joan-etorriko hegaldia (Bilbotik Pragara, eta itzulua), dataren arabera, betiere hegazkinean lekua dagoenean.
 - Igandean, Bilbo – Praga
 - Ostegunean, Praga – Bilbo
 - Aireportutik hotelerako eta hoteletik aireporturako joan-etorriak ibilgailu pribatuan.
 - 4 gau (ostatua eta gosaria barne)
 - 4 izarreko hotela
 - Bidaia-asegurua
 - Bost irabazlerentzat: liburu elektronikoak eta bluetooth bozgorailuak
 - TXARTELAREN BIDEZ BOZKATZEN DUTENEN ARTEAN:
 - Bost irabazlerentzat: bluetooth bozgorailuak
4. Zozketa Donostia Kulturaren bulegoan egingo da (Konstituzio Plaza, 1, 20003 Donostia), 2018ko abuztuaren 22an.
5. Ausazko hautaketa bidez egingo da zozketa, programa informatiko baten laguntzaz, parte-hartzaileen artean. Kutxa opaku batetik aterako dira txartelak, ausaz.

6. Irabazleak eta ordezekoak:

- Pragarako bidaia: irabazle bat eta bi ordezeko izendatuko dira
- Liburu elektronikoak: 4 irabazle eta 4 ordezeko
- Bluetooth bozgorailuak: bost irabazle eta bost ordezeko (aplikazio bidezko bozketa)

Ez irabazleekin, ez ordezekoekin harremanetan jartzea lortzen ez badugu, saria esleitu gabe geratuko da.

7. Irabazleen izenak Euskaltelen sare sozialetan eta *Diario Vasco* egunkarian argitaratuko dira. Telefono bidez jarriko da Euskaltel irabazleekin harremanetan.

8. Donostia Kulturaren bulegoetan jaso behar dira sariak (Konstituzio Plaza 1, 20003 Donostia).

9. Sariak jasotzeko epea: hilabete egongo da sariak jasotzeko, sariak jakinarazten diren unetik zenbatzen hasita.

10. Erreklamaziorik izanez gero, idatziz bidali behar dira, helbide honetara: Euskaltel SA, Parke Teknologikoa, 809 eraikina, 48160 Derio (Bizkaia).

11. Desadostasunik badago, Euskaltelek eskumen osoa du haiek aztertu eta ebazteko.

12. Sustapenean ezin dute parte hartu ez Euskaltel SAko langileek, ez haien senitartekoek.

13. 18 urtetik beherakoek ezin dute zozketan parte hartu.

14. Euskaltelek eskubidea du edozein arrazoi dela medio sustapenak aldatzeko, eteteko edo behin betiko bertan behera uzteko, eta ez du inolako erantzukizunik izango horregatik.

15. Ez da inolaz ere onartuko irabazitako sarien ordezkari beste sari batzuk edo dirua hartzea.

16. Parte-hartzaileek emandako datuak sarien zozketa kudeatzeko erabiliko den EUSKALTELen fitxategi batean sartuko dira. Halaber, Euskaltelek jakinarazten dizu Euskaltelen jabetzako fitxategi batean dauden zure datu pertsonalei erantsiko zaizkiela ematen dizkiguzun datuak (helbide elektronikoa, telefono mugikorraren zenbakia, operadorea eta iraupen-konpromisoa), edo haiek ordeztuko dituztela, zuri Euskaltelen produktu eta zerbitzuen eskaintzak egiteko erabiltzeko. Halaber, datu pertsonalak babesteari buruzko 1999ko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta aplikatzekoa den gainerako araudian ezarritakoaren arabera, noiznahi erabil dezakezu datu pertsonaletara sartzeko, haiek zuzentzeko, ezeztatzeko edo aurka egiteko eskubidea. Horretarako, idatzi bat bidali behar diozu, postaz, EUSKALTELi, zer eskatzen den adieraziz eta NANaren fotokopiarekin, helbide honetara: 3 FD posta-kutxa, 48160, Derio (Bizkaia); bestela, deitu Bezeroentzako Arreta Zerbitzura (1717, edo haren ordezkari dagokiona), edo bidali mezu elektronikoa bat helbide honetara: info@euskaltel.com.

17. Sustapen honetan parte hartzeak berekin dakar oinarri hauek onartzea.

